

1. SARRERA

Elkarbizitza Plan hau elkarbizitzaren inguruko gure antolaketa eta funtzionamendua zehazten duen EGUZKILORE Institutu Publiko Integratuaren dokumentuetako bat da. Berak ezartzen ditu gure hezkuntza-komunitateak partekatzen duen elkarbizitza-ereduaren ildo nagusiak, lortu nahi ditugun helburuak, horiek lortzeko eta plana bera ebaluatzeko egokiak iruditzen zaizkigun jarduerak.

Ikasturte bakoitzean, Urteko Planean, lehenetsi nahi ditugun elkarbizitza-helburuak zehaztuko ditugu eta helburu horiek lortzeko berariazko ekintzak antolatuko ditugu.

Plan hau lantzean kontuan izan ditugu gure komunitatean indarrean dagoen araudia eta **ikastetxea antolatzeko eta kudeatzeko gure dokumentuak**.

2012-2013ko ikasturtean onartutako IHPko helburuen artean elkarbizitza positiboaren sustapena aipatzen da, gatazkak konpontzeko elkarriketa, errespetua eta komunikazioa erabiliz eta elkarbizitza urratzen duten egoerak saihesteko prebentzio-jarduerak garatuz.

2013-2014 ikasturtean onartutako AJAn azpimarratzen dira elkarbizitza sustatzeko eta gatazkak konpontzeko prozedurak, eta ikasleen parte hartzea sustatzen du ikastetxeko elkarbizitza-araudiaren prestaketan.

Tutoretzako Ekintza Plana (TEP) lehen mailako baliabidea da proposaturiko elkarbizitza-helburuak lortzeko ekintzen garapenerako.

Beste aldetik, azken ikasturteetako urteko memoriak argi azaldu dute elkarbizitza positiboaren eta gatazken prebentzioaren garapenerako egituren antolaketa indartu beharra, eta helburu zehatz eta errealistagoak formulatzearen egokitasuna.

Plan honen **helburua** da, denen adostasunez, gure ikastetxerako nahi dugun elkarbizitza-eredua definitu eta bideratzea. Gure ustez, elkarbizitza positiboa, berez hezkuntzaren helburu bat izateaz gain, irakasteko eta ikasteko prozesuak hobetzen dituen eskola-giroaren oinarria da, eta eragin zuzena dauka ikasleen emaitzen hobekuntzan.

Ondorioz, Plan hau pizten duten printzipio eta balioak hauek dira:

- Pertsonenganako eta denon artean adostutako arauetako errespetuan oinarrituriko elkarbizitzaren sustapena.
- Komunitateko estamentu guztien kooperazioa, konpromisoa eta erantzukizuna bizitzeko ikastetxe egoki, segurua eta hezigarri bat lortzeko.
- Ikasle guztien integrazioa, beren ezaugarri pertsonalak eta sozialak zeinahi izanik ere.
- Gatazkak modu baketsuan ebaztea, elkartasuna eta enpatia.

Hitz batean, lortu nahi duguna da gure ikasleek ezagutu eta praktikan jar ditzatela eskolatzearen amaieran lortzea espero dugun balio, jarrera eta portaerak.